

II.ATALA: ARNAS APARATUKO FARMAKOLOGIA

12. ARNAS APARATUA

- Asma eta EPOC

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoa (farmakologikoak + desiragaitzak)
<ul style="list-style-type: none"> • Eragin laburrekoak: Salbutamol, Terbutalina • Eragin luzekoak: Salmeterol, Formoterol 	Agonista β 2 adrenergikoak	Agonista β 2 (Gs), AMPc handitu AZ aktibatzearen ondorioz	Bronkozabalkuntza, mastozitoen askapena murriztu, garbiketa mukoziliarra faboratu, dardarak, takikardia, hipotentsioa, urduritasuna, hipopotasemia
Ipratropio bromuroa	Antikolinergikoak	M3 antagonista ez-selektiboak (Gq), tonu sinpatikoaren blokeoa	Bronkozabalkuntza, mukien handipena inhibitu
Teofilina	Metilxantinak	Adenosina hartzailearen antagonismo lehiakorra, fosfodiesterasaren inhibitzaileak (AMPz handitu)	Bronkozabalkuntza, erantzun bronkialaren gutxipena, garbiketa mukoziliarra handitu, arnas zentruaren estimulazioa, inotropismo eta kronotropismo +, birikietako presio arteriala txikitu, NSZean kitzikapena, diuretikoak, urdaileko azido eta pepsinaren jariapena handitu, takikardia, eragin neurologikoak, urdail hestekoak
Beklometasona, Budesonida, Flutikasona	Kortikoideak	Zitosoleko hartzaileei lotu, dimerizatu, nukleoan gene espresioa aldatu.	IL5 eta IL3 formazioa murriztu (zitozinen formazioa murriztu), leukotrienoen sintesia inhibitu, eosinofilo aktibazioa inhibitu, ahoko kandidiasia, afonia, hazkundearen atzerapena umeengan, Cushing sindromea, immunodepresioa, miopatiak
Kromoglikato sodikoa, Nedokromiloa	Bitartekarien askapenaren inhibitzaileak	Ezezaguna. Mastozitoen degradazioa saihestu	Eragin antiinflamatorioa
Montelukast, Zafirlukast	Leukotrienoen antagonistak	LTC4, LTD4, LTE4en eraginaren inhibizioa, leukotrienoen hartzaileen antagonistak (CysLT1 hartzailea blokeatu)	Eragin antiinflamatorioa
Zileuton	Leukotrienoen antagonistak	5-lipooxigenasaren inhibizioa, leukotrienoen sintesia inhibituz	Eragin antiinflamatorioa
Omalizumab	Antigorputz monoklonala	Ig-Eren bitarteko efektuak inhibitu, honi lotu eta ez dio bere efektuak eragiten uzten	Eragin antiinflamatorioa

- Eztul kontrako farmakoak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin farmakologikoa
Kodeina, Dextrometorfanoa	Opiazeoak	μ hartzaillearen inhibizioa, ekintza zentrala	Idorreria, NSZren depresioa *haurdunaldian eta alkoholarekin ez
Noskapina	Beste batzuk	μ hartzaillearen inhibizioa, ekintza zentrala	Ez da analgesikoa
Difenhidramina	Beste batzuk	H1 antihistaminikoa	

- Espektoratzaileak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin farmakologikoa
Mentol, Eukaliptol	Balsamikoak		Zelula bronkialen estimulazio zuzena
Ioduro potasikoa, Ioduro sodikoa	Ioduroak		Jariapen urtsua eragiten dute muki eta listu guruinetatik
Suero hipertontikoa			Garbiketa mukoziliarra areagotu eta jariapenak hidratatu

- Mukolitikoak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin farmakologikoa
N-azetilzisteina, Karbozisteina		Zisteinen disulfuro zubiak apurtu	Mukien biskositatea murriztu
Bromhexina, Ambroxol			Entzima hidrolitikoaren jariapena bultzatu